

# EZ DOKERO

Egilea  
**PATXO TELLERIA**

Zuzendaria  
**JOKIN OREGI**

**TARTEAN TEATROA**



**Aktoreak**

**MIKEL MARTÍNEZ**

**PATXO TELLERIA**

NAIEL IBAROLA 2020



**ED3 BUELTAN DA!**

# ***EZ DOK ERO***

(Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek osatutako EzDokHiru bikote artistikoaren ikuskizun berria)

“**E**uskal herriko antzoki batean,  
zeinaren izena ez dudan gogoratu  
nahi...”

**Euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen  
irudi deformatua, barregarria eta aluzinatua.  
Euskal Antzerkiaren “road movie” eroa**

Literatura unibertsaleko arketipo ezagunenera joz gero,  
Mikelek On Kixoteren irudia ekarriko digu gogora,  
idealismo erabatekoa, ongia egiteko gogo eutsiezina,  
gloria erdiesteko grina eta errealtatearen interpretazio  
eszentrikoaz.

Patxok Santxo Panza baten itxura hartuko du, bere  
pragmatikotasun erabatekoa, anbiziorik eza ikaragarria eta  
baldarkeriarekin.

Bestea bezain zoroa, ez bada gehiago.

## **SINOPSISIA**

“Mikelote eta Pantxo” bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen, eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute.

Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa. Eskenatokietatik urruntzeko gogoa zuen aspalditik, bizimodu lasai eta normalizatua desiratzen zuen, artearen eromenetik urrun. Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan. Eta pozoia horrek burua galtzeraino eramango du.

Egun batean Mikelote, “antzerkilari andante” estrefalariora, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskalerrian barna joateko, herriz herri antzeztera, “Euskal Antzerkiak Behar Gaitu” uste inozoarekin. Horrela ibilbide fantastiko bat egingo dute Euskal Herrian zehar, hamaika abentura ero biziz. Mikeloteren imaginazioak sorturiko pertsonaia harrigarriak ezagutu eta egoera korapilatsuetan endredatuko dira.

## **NORTZUK GARA?**

TARTEAN TEATROAren barruan bi lerro desberdin jorratzen dira: batetik TARTEAN zigiluarekin doazen antzezlanak

(Pankreas, Ghero, Simplicissimus...); bestea, EzDok3 sailekoak (Euskera sencilloaren manifestoa, Lingua Nabajorum, Ez dok hiru-euskal musikaren benetako istorioa...). EZ DOK ERO proiektu berri hau bigarren lerro horri dagokio, eta beraz, Mikel Martinez eta Patxo Telleria bikote artistikoa dute ardatz.

**EZ DOK ERO** fikziozko istorio bat da, baina errealitatean ditu sustraiak ondo erroturik. Autoreferentziala da neurri handi batean. Mikel eta Patxoren autofikzioa hor dago denbora guztian, geure buruaz barre egiteko ironia handiz eta batere gupidarik gabe. Eta gure buruaz ez ezik, gure gizarteaz ere egiten dugu barre, eta euskal kulturaz eta, nola ez, euskal antzerkiaz.

## **Fitxa artistikoa**

Egilea: **Patxo Telleria**

Zuzendaria: **Jokin Oregi**

Aktoreak: **Mikel Martínez eta Patxo Telleria**

Musika: **Adrian Garcia de los Ojos**

Koprodukzioa: **Basauriko Social Antzokia**

Produkzio exekutiboa: **Pio Ortiz de Pinedo eta Myriam Garzia**

Banaketa eta Komunikazioa: **Myriam Garzia**

**Kontaktoa: [tartean@tartean.com](mailto:tartean@tartean.com) edota 688 617712 telefonoan**

**ESTREINALDIA: 2020ko azaroaren 10 eta 11n**  
**Bilboko Arriaga Antzokian**